

Tigray Etiopiako iparraldean dago, Eritrearekin mugan. Baliabide naturalen muturreko ustiapenak batetik eta lehortek bestetik gosetea hedatu dute biztanleriaren artean. Estatu federal hone-tan, %60k muturreko pobrezia pairatzen du. Mugarik Gabeko Medikak (MSF) gobernuz kanpoko erakundeak desnutrizio tasa «oso kezkagarria» dela ohartarazi du, batez ere adin txikikoen, haurdun dauden edo bularra ematen ari diren emakumeen artean.

Tigrayko Herri Askapenerako Frontearen (TPLFren) kontra Etiopiako Gobernuak azaroan hasi zuen operazio militarrek eskualdeak zuen osasun azpiegitura ia erabat suntsitu du. Sebeyan, 17.600 pertsona artatzen zituen eraikin sare bat zegoen. Obstetrizia zerbitzua eta guzti zuen. Bertan, esaterako, Fatima bere lau seme-alabez erditu zen. Zaintza berezirik behar izanez gero, anbulantzia Adigrat hirira eramaten zuten pazientea. Baina azaroan, aire eraso batek erditzeko gela, beste bi gela eta inkubagailua suntsitu zituen. Orain, beren etxeetan erditzen dira amak, horrek dituen arriskuekin. MSFk Tigrayko 50 herri menditsuetarako klinika ibiltari bat prestatu du.

«Ez dakigu krisiaren tamaina zenbaterainokoa den, baina nekazaritzako eremuetan artatu ditugun paziente askok esan digutenez, ez dute modurik elikagaiak banatzen dituzten lekue-tara joateko», azaldu du larrialdietako MSFko koordina-tzaile Karline Kleijerrek. Azken asteetan, artatu dituzten 309 haurren laurdenek desnutrizio sintomak zituzten. 2020ko azaroaz geroztik, Adiftaw hirian bi-zi diren 10.000 herritarrek ezin

«Industria eta eskola asko desagertu egin dira erasoen ondorioz.

Ospitaleetan zegoen materialaren %85 ez badute apurtu, lapurtu egin dute, eraikinak suntsitu edo hustu dituzte. Beldurrez bizi dira herritarrek»

«Tanzanian, harreman oso polita egin nuen jendearekin; harrera oso ona izan zen, oso atseginak izan ziren nirekin hasiera-hasieratik, elkar entzute hori ederra izan zen. Guztiok aberastu egiten ginen hartu-eman horrekin, inor ez zegoen bestearen gainetik»



izan dute medikuarengana joan, ezta arreta berezia jasotzeko ospitalera ere. Horien artean emakume haurdunak daude, baita adineko pertsonak eta malaria duten gaixoak ere.

Janari erreserbak handitzen ez badira eta osasun langileen eta langile humanitarioen esku hartzea areagotzen ez bada, desnutrizioa orokortzeko arrisku larria dagoela ohartarazi du gobernuz kanpoko erakundeak.

Angel Olan (1938) Hernaniko misiolaria eta Maider Aroste-gi kooperantea eskualdeak bizi

duen egoera larriaren lekuko zu-zenak dira. 2020ko azaroan etorri zen Olan Euskal Herrira, Tigrayn gerra lehertu baino egun gutxi batzuk lehenago. «Ni hona itzuli eta lauzpabost egunetan hasi ziren lehen erasoak, ez genuen halakorik espero, harrigarria izan zen», dio. Harrez geroztik testigantza zuzenak telefonoz jaso izan ditu Olanek, testigantza «gogor eta gordinak». Ahal duen moduan eramaten du gertatzen ari dena. Tigrayn bizi den krisi humanitaria salatzeaz gain, bertan gerta-

tzen ari dena genozidioa dela nabarmendu dute biek.

Hemezortzi urterekin egin zen misiolari. Afrika zuen bu-ruan eta Tanzanian izan zuen bere lehenengo misioa, Aita Zu-rien kongregazioan. 1970. urte-an iritsi zen hara. Bertan bi ha-markada luze eman zituen. 1990. urtean islamaren ingu-ruan formakuntza ikastaro bat egin zuen eta horren ondotik, urte horretan bertan, Etiopiako iparraldera, Tigrayra hain zuzen ere, joatea proposatu zioten. Baiezkoa eman zuen eta geroz-



«Gosea gerra arma gisa erabiltzen ari dira Tigray eskualdean, genozidioa da gertatzen ari dena»

tik Wukro izeneko herrian bizi da. “Saint Mary” misioaren baitan hainbat proiektu martxan ipini ditu osasungintzaren eta hezkuntzaren arloan, batez ere. 1991n Mekelle hiriburura iritsi zenean, ez zegoen ez autobusik ez autorik, soilik kale nagusia zegoen asfaltatuta. Bigarren Hezkuntzako eskola bat eraikitzeko mandatua zuen. 1993. urtean hasi ziren eraikitzen, eta lehenengo klaseak 1995. urtean hasi ziren ematen. Lehenengo ikasturte hartan, neskak soilik %15 ziren; gerra hasi aurretik or-

dea, Bigarren Hezkuntzako eskoletan emakumeak erdiak baino gehiago ziren. Lehen, eskola eraiki zuten lekuan, zortzi hektareako gunean, zuhaitz bat zegoen bakar-bakarrik.

Pasa den maiatzaren 12an omenaldi beroa egin zioten Olarani Donostiako Aquariumen. Abba Melaku, «aingeru aita», hala esaten baitiote Wukron, Tigrayra noiz itzuliko zain dago. Bitartean, lanean jarraitzen du. Berarekin eta Maider Arostegirekin mintzatu zen GAUR8 omenaldiaren aurretik. Ahal duten bezain azkar itzultzeko asmoa dute. Han dagoen egoerarekin oso kezkatuta, Arostegik gogor salatu du Etiopiako Gobernuak gosea «gerra arma» gisa erabiltzen duela. Genozidio hitza hainbat alditan azpimarratu du elkarrizketan.

Nola iritsi zinen Etiopiara?

Angel Olan: Nire sustraiak Euskal Herrikoak dira, txistua eta trikitia entzuten ditudanean oilo ipurdia jartzen zait. Euskal kultura, Adarra mendia... odolean eramaten ditut. Konpromiso soziala Afrikan bereganatu nuen. Tanzanian hasi nintzen. Han hogeitaz urtez egon nintzen. Euskal enbor horretan Tanzaniako esperientzia nire konpromiso sozialaren lehenengo txertoa izan zen.

Apaiz egin nintzenean, ez nekien zer zen misiolaria izatea, entzunda nuen zer bait baina ezin jakin nola bukatuko zen hori. Tanzanian, harreman oso polita egin nuen jendearekin; harrera oso ona izan zen, oso atseginak izan ziren nirekin hasiera-hasieratik, elkar entzute hori ederra izan zen. Elkarren arteko ezagutza aberatsa izan zen. Guztiok aberastuta ateratzen ginen, inor ez zegoen bestearen gainetik, inork ez zuen bestea konbentzitu behar. Herri-

tarrak pobreak ziren arren, uzta- ren amaierara iristeko gai ziren. Uztatzen zutenari esker, jan zezaketen, arropa erosi, seme-alabak eskolara bidali. Egiten genituen ekintzak haiek ahalduz bideratuta zeuden; kostata, baina esan bezala, hilabete bukaerara iristeko gai ziren.

1990ean urtebetezislama ikasi nahi ote nuen galdetu zidaten nire superiorrek, Tanzanian musulman asko baitago eta elkarbizitza estua genuen. Bestearen pentsamendua ezagutzeak ate asko irekitzen dizkizu; zerbait esaten duenean, badakizu zergatik esaten duen, alboan duzun hori hobeto ulertzeko baliabideak ematen dizkizu. Ikastaro hori egiten ari nintzela, Aita Zuriak ea Etiopiara joateko prest nengoen galdetu zidaten.

Etiopian ere harrera beroa izan zen, baina herritarren egoerari dagokionez, egoera beste bat zen, Tanzanian ez bezala, miseria ikusi nuen. Umezurtzak, laguntzarik gabeko adineko pertsonak seme-alabak hiesak jota edo gerran hil zirelako... topatu nituen. Gizarte mailan behar gehiago zeuden. Herritarrek beren kabuz bakarrik ezin zuten aurrera egin. Hamarkada luzeetako gerraren ondorioz ez zegoen azpiegiturarik.

Tigrayko eskualdeak zortzi milioi biztanle ditu eta Bigarren Hezkuntzako bederatzi eskola besterik ez zeuden. Lehen Hezkuntzako ikastetxeak elkarrengandik oinez lauzpabost ordura zeuden. Ospitaleekin gauza bera. Oinarritzko osasun eta hezkuntza zerbitzuak oso utzita zeuden. Wukroko administrazioak Gotzaindegia Bigarren Hezkuntzako eskola bat eraikitzea eskatu zion. Zortzi hektarea eman zizkiguten horretarako. Eraikitzen genuen bitartean, bertakoekin harremana sendo-

ANGEL OLARAN ETA MAIDER AROSTEGI

MISIOLARI ETA KOOPERANTEA

Angel Olan misiolari hernaniarra omendu zuten Donostiako Aquariumen maiatzaren 12an. Harekin Maider Arostegi kooperante alegiarra egon zen

Ainara Lertxundi

tuz joan ginen. Poliki-poliki, bizilagun batek bakarrik bizi zen adineko bat ekartzen zuen guregana, hurrengo egunean, beste batek umezurtz gelditu ziren lau ume ekartzen zizkigun, etxea erori egin zitzaion jendea guregana etortzen hasi zen. Tanzaniara iritsi nintzenean, Elizak, eraikin eta komunitate gisa, 80 urteko historia zuen. Wukron ez zegoen katolikorik, ez zegoen tenplurik ere. Lehenengo gizarte zerbitzuekin hasi ginen eskolan, kartzelan... eta horrela, harreman sarea eraikitzen joan ginen. Gizarte zerbitzuak antolatuta eta bideratuta egon arte, ez zuen Elizak eraikin fisiko bat izan. Guk egiten duguna kuantifikatu daiteke, zifratan ipin dezakezu orrialde txuri batean, baina haiek zuri ematen dizuten guztia ezin daiteke inolaz ere idatzi. Maitasuna ematen dizute, eskutik helduta beren kaleetatik eramaten zaituzte... hori ezin da inolaz ere zenbatu eta hori da, hain zuzen ere, ikasten ari naizena Etiopian.

**Euskal Herrira etorri eta gutxi-
ra, Etiopiako Armadaren eraso-
ak hasi ziren. Nola bizi dituzu
hango berriak?**

Angel Olanar: Itzuli aurretik ere bazegoen gatazka, egia da azaroz geroztik areagotu eta okertu egin dela. Wukron sei bat gerra fronte daude, horietan giroa izugarria izango dela suposatzen dut, ez bakarrik tiroengatik eta lehergailuengatik, baizik eta soldaduak etxeetara sartzen direlako, emakumeak bortxatzen dituzte, etxeei su ematen diete, ondasunak lapurtzen dituzte... horrelako urraketek jarraituko dute baldin eta horiek eteteko erabaki sendo bat hartzen ez badute. Guk ez dugu hori egiteko ez gaitasunik ez botererik. Urraketa horiek amaitzeko boterea dutenek tamalez ez dute hori



IBILBIDEA

Angel Olanar Hernanin jaio zen 1938an. Apaiz egin ostean, misiolari izatea erabaki zuen Aita Zuri en kongregazioan. Tanzania izan zen bere lehenengo misioa. Bertan hoge urtez egon ostean, Tigrayra, Etiopiar bidali zuten, Wukrora. Maider Arostegi alegiarra opor garaian hasi zen Etiopiar joaten kooperante gisa. 2020an Wukrora itzuli zen adimen urritasuna duten hurrekin hezkuntza proiektu bat garatzeko. Urtarrilean etorri zen Euskal Herria.

egiteko prestutasunik: Nazio Batuek, Afrikako Batasunak, Europar Batasunak, Ameriketako Estatu Batuek. Etiopiaren eta Eritrearen gainean boterea izan arren, ez dira ari ezer egiten. Gizateriaren kontrako krimenak eta gerra krimenak gertatzen ari dira, horren frogak daude eta balizko epaiketa batean erabil daitezke. Erantzuleak Armada nazionala eta Eritrea dira. Baina, orduan Etiopiak zera esaten die beste potentziei eta Nazio Batuei: ‘Ez, ez, guk zuek baino hobeto dakigu zer gertatzen ari den eta jakin badakigu erantzuleak bakarrik Tigraykoak direla eta Eritreako soldaduak ez daude Etiopian’.

Segurtasun Kontseiluan, Txinak eta Errusiak Etiopiako barne

arazo bat dela diote, haiek konpondu behar dutela, lehen ministro etiopiarrek segurtasuna eta ordena berrezarri nahi dituela eta eskubidea duela. Etiopiak Txinaren alde bozkatu du Segurtasun Kontseiluan uigurren kontra duen aferan eta Txinak Tigraykoa barne arazo bat dela dio. Mandatari bakoitzak bere interesen arabera jokatz du, ez bakearen mesederako.

Horrela, oso zaila izango da gerra amaitzea eta herritarrek batzuen zein besteen alde libreki bozkatzeko. Abuztuan, *tigrino*ek beren talde politikoen alde bozkatu zuten ia aho batez.

Etiopiako lehen ministroak orain esaten du Tigrayko biztanleak berarekin oso pozik daudela gaizkileengandik askatu di-

tuelako –TPLF zegoen agintean Tigrayn. Abiy Ahmed lehen ministroak maiatzaren 6an eskualderako gobernadore berria izendatu zuen, Abraham Belay, talde politiko berekoa-. Eritrea oso sartuta dago gatazkan eta jada Tigrayrenak ziren lur batzuk bereganatu ditu eta nekez askatu ko ditu. Beraz, ez dut erraz ikusten gerraren amaiera.

Nola deskribatuko zenuke bertako egoera?

Angel Olanar: Egungo egoera oso txarra da. Industria eta eskola asko desagertu egin dira erasoen ondorioz. Ospitaleetan zegoen materialaren %85 ez badute apurtu, lapurtu egin dute, eraikinak suntsitu edo hustu dituzte. Jendea beldurrez bizi da.

Bi milioi desplazatu omen dau-
de... hara iritsi arte, ezinezkoa da
erradiografia zehatza egitea.
Maiderek zerbait ikusi zuen
atera aurretik, nik bakarrik ar-
gazkiengatik irudikatu dezaket
giroa. Auskalo zer aurkituko du-
dan bueltan, baina nire ustez
oso zaila izango da konfederazio
bat osatzea.


**Maiden, zerk eraman zintuen
kooperante gisa Tigrayra?**

Maiden Arostegi: Iazko otsaile-
an joan nintzen hara. Urtarrila-
ren erdialdean itzuli naiz. Ange-
lek eraman ninduen. Lehen
aldiz duela sei urte joan nin-
tzen, nire opor garaian joaten
nintzen. Txikitatik, mojek Etio-
piako diapositibak jartzen zizki-
gutenean, herrialde horretara
joateko grina sentitzen nuen.
Besteen bizi kalitatea hobetzen
laguntzeak bete egiten nau. La-
gun batek Angel ezagutzen zuen
eta berarekin harremanetan ja-
rri ninduen. Hasieran opor ga-
raian joaten nintzen eta, gero,
bertan gelditzea erabaki nuen.
Hiru hilabeterako joan nintzen,
baina azkenean bost izan ziren.
Adimen urritasuna duten hau-
rrentzako hezkuntza proiektu
bat garatzea proposatu nion An-
geli, zehazki haienezako gela
propio bat. Programa horretan
ari nintzen lanean Euskal Herri-
ra etorri aurretik. Ez dakit itzul-
tzen garenean programarekin
jarraitu ahal izango dugun, ego-
erak ahalbidetuko duen, pentsa-
tzen dut bestelako behar batzuk
egongo direla.

**Etiopiako Armadaren eraso-
azaroaren 4an hasi zen eta zu,
Maiden, urtarrilean itzuli zi-
nen. Hilabetez, zure senideek
ezin izan zuten zurekin harre-
manetan jarri komunikazio
oro eten zuelako Etiopiak. As-
ko dira erasoaldia genozidio-
tzat hartzen dutenak.**

*«Eskualdean talde
armaturik egon ez
arren,
bonbardaketak
egon dira,
droneekin,
misilekin,
hegazkinekin, eraso
ziguten bost egunez
Tigraykoak
borrokatzen ari ez
baziren ere»*

*«Guk egiten duguna
kuantifikatu
daiteke, zifratan
ipin dezakezu
orrialde txuri
batean, baina haiek
zuri ematen dizuten
guztia ezin daiteke
inolaz ere idatzi»*



Maiden Arostegi: Hala da, garbi-
keta etnikoa egiten ari dira. Go-
sea arma gerra gisa erabiltzen
ari dira. Ez dute eskolarik, ez da-
go osasun publikorik, ez dago
deus ere, pentsa. Eskualdean tal-
de armaturik egon ez arren,
bonbardaketak egon dira, herri-
tarrak beldurrez daude; dronee-
kin, misilekin, hegazkinekin,
eraso ziguten bost egunez, Ti-
graykoak borrokatzen ari ez zi-
ren arren. Eritreak okupazioa
gertatu zen ondotik, arpilatzeak
egon ziren, pertsona edo txakur
baten bizitzek balio bera dute.
Angelek esan duen bezala, bi

milioi pertsonak ihes egin behar
izan dute, familia asko banatuta
daude, emakumeak erditzean
hiltzen ari dira, haurrak, senda-
garriak diren gaixotasunengatik
jendea hiltzen hasi da eta gose-
ak eragindako lehen heriotzak
gertatu dira jada. Egoera bene-
tan oso kritikoa da eta latza da.
Tamalgarria da 2021. urtean
egonik hau gertatzea eta horre-
lakorik baimentzea. Orain erein-
tza garaia da, baina haziak blo-
keatu dituzte, animalia denak
hil dituzte nekazariak lan egite-
ko aukerarik izan ez dezaten, la-
nean harrapatzen badituzte hil-

ko dituztela esanez mehatxatu
dituzte. Mundu guztiak daki ge-
nozidioa dela, baina beste alde
batera begiratzen du.

Angel Olan: Tigrayn, biztanle-
riaren %85 nekazaria da, familia
bakoitzeko hektarea bateko lu-
rra dute. Uztailean eta abuztuan
bakarrik egiten du euria, gaine-
rako hamar hilabeteak lehorre-
koak dira. Uzta oso ona bada
ere, hektarea batekin, familia
batek bost-sei hilabete biziraun
dezake, urtearen gainerakoan
“lana janariaren truke” gobernu
programari esker bizi dira. Go-
bernuari haziak iristen zaizkio
eta hazi horiekin azpiegiturak
eraikitzen, errepideak konpon-
tzen... lan egiten dutenei ordain-
tzen die. Janari horri esker hu-
rrengo uztara iristen dira.
Aurten ezin badute erein, bizi-
rauteko kanpoko laguntza ho-
rren mendekotasuna erabate-
koa izango da, baina mugak
itxita daude eta ez dute hazirik
sartzen uzten. Eritreak hazi ho-
riek blokeatuta ditu mugan.

Maiden Arostegi: Azaroan ezin
izan zuten uzta jaso gerran
geundelako. 8oko hamarkadan
egon zen gosetearekin konpara-
tzen ari dira etor daitekeen ego-
era. Inork ez badu zerbait egiten
orain, sei hilabete barru 1985eko
irudi lazgarri horiek errepikatu
gingo dira Tigrayn. Krisi huma-
nitariora oso latza izan daiteke.

Angel Olan: Gogoratu behar
dugu 1984-85eko gosetea ez zela
janari faltagatik izan. Urte har-
tan uzta oso txarra izan zen. La-
guntza eskatu beharrean, Go-
bernuak herritarrak errefuxiatu
kanpalekuetara bideratu zituen
urik eta janaririk gabe. Tifus eta
koleragatik hil ziren asko. Orain,
gobernuak laguntza eskatuko
balu ere, laguntza hori mugan
geldituko da, blokeatuta baitute.

